

KONTROL MOZIOA

SANTA KLARA UHARTEAREN KUDEAKETARI BURUZKOA

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga EH Bildu udal taldeko zinegotziak Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko ekainaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2021eko ekainaren 2an izan da Hondalearen aurkezpen ofiziala, eta ekainaren 5ean publikoari zabaldu zaio itsasargiko arte-lana. Une hori mugarri bilakatu da uharteko eta hiriko ekosistema soziokulturalean, herritarren iruditegian horrenbesteko balioa duen espazio hau behin betiko eraldatuz.

Santa Klara uharteko lanak hasi zirenez geroztik, hainbatetan jarri dira mahai gainean itsasargiko esku-hartzeak, ingurumenari eta hiriko balio naturalei, ondareari, udal ekonomiari, etenik ez duen turistifikazio prozesuari, edota hiri-espazio eta -baliabideen pribatizazioari dagokienez ekar zitzakeen ondorioen inguruko kezkek. Azkena, Bizilagunekin plataformak, Haritzalde naturzale elkarteak, Eguzki talde ekologistak eta Parkea Bizirik elkarteak elkarrekin kaleratutako oharra dugu, 2021eko maiatzaren 26an argitaratua. Bertan, besteak beste, ondorengo irakurtzen da:

Proiektuaren balizko eragin kaltegarriak murrizteko eta bere balio natural eta soziokulturalen zaintza bermatzeko neurriak diseinatzekoan laguntzeko borondatea azaldu diegu erakunde arduradunei. Donostiako Udalak eta proiektuaren sustatzaileek premia hau partekatzen dutela azaldu digute eta zerbitzu teknikoekin batera kudeaketa bide-orri bat sortu dute.

2021eko ekainaren 14ko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean “bide-orri” horretaz galdetuta, Kulturako eta Euskarako zinegotzi ordezkari Jon Insausti Maisterrenak adierazi

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

zuen, pandemia testuingurua dela-eta, Udal Gobernuak esku artean duen proposamenak 2021. urterako kudeaketa irizpideak ezartzen dituela soilik, eta behin epe hori igarota, beharrezko balorazioak egin eta orduan zehaztuko dituztela aurrera begira jarraitu beharreko irizpideak. Hori da, hain zuzen ere, arestian aipatu eragileek egiten duten kritiketako bat, egungo proposamenean “epe laburreko ikuspegia gailentzen” dela, alegia. Aldi berean, “anbiguotasunerako eta salbuespenerako tarte handiegia azaltzen” duela diote, eta honela, “kudeaketa irizpide zehatz eta irmoa ezartzeari uko egin” zaiola. Zentzu honetan, “ez da itsasargirako eta uharterako onartutako erabilerei buruzko inolako argibide zehatzik ematen”, eta gainera, “proposamenak ez du inolako legezko euskarririk”.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

- 1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aurkeztu eta publiko egin ditzala Santa Klara uhartea eta itsasargiko arte-lana kudeatzeko 2021eko epealdirako proposatu dituen neurriak.
- 2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aurkeztu eta publiko egin dezala Santa Klara uhartea eta itsasargiko arte-lana kudeatzeko behin betiko plana.

Donostian, 2021eko ekainaren 18an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

EH Bildu udal taldeko zinegotzia